

# Juan Kruz Igerabide, ahozkotik idazten eta itzultzen

KARLOS DEL OLMO

Juan Kruz Igerabide Sarasola Adunan jaio zen (Gipuzkoa), 1956an, eta hantxe bizi da. Lehen Hezkuntzako irakaslea, Filologia Hispanikoko lizentziaduna eta Euskal Filologiako doktorea da. Hainbat urtean Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakasle izan ondoren, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle jardun zuen, Euskal Filologia sailean eta Euskara Zerbitzuan. Literatura unibertsaleko zenbait liburu ekarri ditu euskarara besteak beste, Luzio Apuleioren *Urrezko astoa* (Anjel Lertxundirekin elkarlanean), Homeroren *Odisearen* eta Ovidioren *Metamorfosien* gazteentzako bertsioak, bai eta Greziako mitoen zenbait egokitzapen ere. Euskal ahozko tradizioa eta euskal literatura ikertzen ere jardun du, eta lan ugari ere izkiriatu ditu, haur eta gazteentzat nahiz helduentzat. Behin baino gehiagotan eskuratu

ditu sariak; adibidez, Haur eta Gazte Literaturako Euskadi Saria, 1999an, eta Espainiako Kritika Saria hiru bider, 1994an, 2003an eta 2015ean. 2018an, Haur eta Gazte Literaturako Espainiako Sari Nazionala eman zioten. Euskaltzaindiako Literatura Batzordeko kide ere izan da. Elkarrizketa ezinbestean birtual honetan, batez ere itzulpenaz dihardu idazle-itzultzaileak; baina Igerabideren beste eginez eta esanez gehiago jakin nahi izanez gero, badago artikulua interesgarri-interesgarri bat *Euskal Literaturaren Hiztegian*, Miren Billelabeitiak idatzia.\*

**KARLOS DEL OLMO:** Nondik datorkizu hizkuntza zaletasuna?

**JUAN KRUZ IGERABIDE:** Umetatik gustatu izan zaizkit hizkuntzak. Garai hartan, egia esateko, ez zegoen aukera handirik hiz-

\* <http://www.ehu.es/ehg/literatura/idazleak/?p=495>

kuntzak ikasteko, eta ikasten zen apurra liburuen bidez ikasten zen, modu idatzian alegia. Gogoan dut zer lilura eragiten zidan apaiz batek Tintinen abenturak diapositibetan bota eta zuzenean frantsesetik itzultzen zizkigunean, edo latinez idatzitako erlijio-testuak irakurtzen genituenean. Euskarako klaseak jasotzeko zorrea izan nuen umetan, euskaraz ematen ziguten dotrinaz aparte; gaztelaniatik euskarara eta euskaratik gaztelaniara itzultzen jarduten genuen, Testamentu Berriko pasarteak batik bat; geroago, frantsesetik ere bai. Dena idatziz. Horrek eguneroko hizkuntzan moldatzeko zailtasunak eman izan dizkit beti, baina, liburu artean, berriz, igela uretan bezala, gustura.

**KARLOS:** Eta idazteko gogoia edo grina?

**JUAN KRUZ:** Narrazioen zale eta poesiaren zale umetatik izanik, banuen halako joera bat neure buruarentzat idazteko. Jolas moduko bat zen (itzultzen ere jolasean bezala jarduten nuen), eta horrek luze iraun zuen; nerabezaroan, neure buruarentzat ez ezik besteri zuzendutako idatziak egin nituenean ere (ama hil berriari, maite nuen neskeri, laguneri...), inork ez zituen irakurri; jarduera intimo bat izan zen hura guztia. Idazlearen irudia oso urrun neukan, oso urrun ikusten nuen Parnasoa, burutik pasatu ere ez zitzaidan egiten idazle bihurtzea, astronauta bihurtzea bezain urrun begitantzen zitzaidan. Orduko ohitura intimo hark hemen dirau, eta jolasak ere bai; esango nuke oraindik ere nire jardunean jolasa dela nagusi. Idazleen giroan aski berandu sartu nintzen, uzkur samar, lotsati edo, eta uste dut ez naizela inoiz erabat integratu. Eskerrak adiskide onak egin ditudan eta

haiekin eroso sentitzera iritsi naizen. Nire lan batzuk argitaratzen hasterako, familia bat osatua nuen, irakasle gisa urteak neramatzen, tesi bat ere egina nuen. Nolabait esateko, nortasunaren alde hori garatua-edo neukan, eta idazte kontuetan, aldiz, umetxo bat sentitzen nintzen. Nire ikasleekin jolasean asmatutako testuak eta etxean barrua askatzeko bakardadean idatzitakoak ziren nire mundu literarioa. Hortik jendaurrerako jauzia asko kostata egin nuen; arrotz sentitzen nintzen, lurralde ezezagun eta arriskutsu batean. Arriskutsua, bai, alde batetik ideologia-kontu latzak zebiltzalako tartean; eta, bestetik, norberaren autoestimua oso erraz birrintzen delako arte-giroan.

**KARLOS:** Nola eta zergatik heldu zinen itzulpengintzara?

**JUAN KRUZ:** Eskola-maisu lanean hasi nintzenez, euskaraz oso material gutxi zegoen, batik bat herri-eskoletan, eta testu asko gaztelaniatik edo frantsesetik hartu eta euskaraz jartzen nituen, edo zuzenean asmatu. Handik urte askora argitaratzen hasi nintzenez, Erein argitaletxean Inazio Mujikak eta Anjel Lertxundik Baudelaireren testu batzuk itzultzeko enkargua eman zidaten, eta hala xe eman nituen itzulpen literarioan barneratzeko lehen urratsak. Aurrerantzean, haur eta gazte literaturan ere enkargu asko izan nituen, eta gozamen hutsa gertatu zitzaidan. Lan berezi bat Anjel Lertxundirekin batera Apuleioren *Urrezko astoa* latinetik itzultzea izan zen; asko ikasi nuen prozesuan. Rodariren testuak edo *Ozeko aztia* itzultzea ere abentura ederra izan da niretzat. Nire ibilbidean, literatura idaztea eta literatura-testuak itzultzea jardunbide beraren bi aurpegi izan

direlakoan nago. Horrez gainera, Itzultzaile Elkarte literatura unibertsala modu sistematikoan itzultzen hasi zenetik, oso ger-tutik jarraitzen saiatu naiz horrek eragin duen hizkuntza literarioaren garapena, eta niregan eragin handia izan duelakoan nago. Jakina, ikastaroetan eta tailerretan ere parte hartu izan dut, eta unibertsitatean nire lana oso loturik egon da itzulpengintzarekin. Juan Garziarekin lan egiteko zorte izugarria eskaini dit bizitzak, eta, gainera, nire lanbi-dean puntako itzultzaile eta adituekin ha-rreman estuan jardun behar izan dut. Dena dela, inoiz ez naiz izan itzultzaile profesio-nala, zentzu hertsian, eta horregatik ez dut nire izena eman Itzultzaile Elkartean, nahiz eta elkarteko proiektu batzuetan parte har-tu dudana. Itzulpena eta literatura-hizkuntza elkarrekin jorratu ditudanean, sormena izan dut xede, ezen ez itzultzaile bihurtzea. Txingiz Aitmatov itzuli nuenean, *Helena eta arrastiria* gazte-nobela etorri zen ondo-ren, idazle horren eragin zuzen aitortuare-kin; *Odisea* gazteentzat egokitu ondoren, *Bosniara nahi* gazte-nobelan argi eta garbi hauteman daitezke Ulisesen abenturen zan-tzuak narrazioaren bizkarrezurra osatuz. Modu zuzenean edo zeharkakoan, nire ida-tzietan beti dago itzulpenaren arrastoren bat, baita poesian ere, ez soilik testu orok itzulpenarekin zerikusia duelako, baizik eta nire lan askoren atzean itzulpen jakin bat-zuk daudelako. Beste adibide batzuk emate-ko, haurrentzat *Grigor eta erlearen ipui-nak* idatzi nuenean, aldeztu aurretik Horacio Quirogaren *Oihaneke ipuinak* itzulia nuen, nahiz eta ez nintzen argitaratzera iritsi; afo-rismoen munduan sartu aurretik, Hipokra-tesen aforismoak argitaratuak nituen Elhu-

yarrekin. Horrela ibili izan naiz, ez modu planifikatuan, egia da, baizik eta eskura etorri edo atsegin hutsez hartutako lanekin, jolasean bezala. Itzultzea irakurtzeko modu «interaktiboa» da, eta estiloaren eta edukia-ren erraietaraino jo behar duzu; beste modu batera esanda, testu literarioa jan eta ondo digeritu behar duzu, eta horrek literatura errai-erraietatik esperimenez eramaten zaitu. Irakurtzeko modurik erradikalena da noski itzulpena.

**KARLOS:** Lehenengo itzulpen «kontzientea» gogoan?

**JUAN KRUZ:** Eskola-maisu nenbilen ga-raian, urtetan erabili nituen esku artean ja-poniar haikuak, Txinako antzinako poeten testuak (Li Bai eta beste), frantses sinbolis-ten zenbait poema, batzuetan neure bakar-lanerako, beste batzuetan umeekin testuak eraldatuz jolasteko. Gogoan dut orduan itzuli nituela gorago aipaturiko Horacio Quirogaren *Oihaneke ipuinak* ere (nire Ma-cintosh txikian dinamitaren irudia agertu, eta hantxe galdu zen guztia). Itzulpen ho-rien aurretik egindakoak formazio akade-mikorako baino ez ziren izan, nerabezaro garaiko kantaren bat edo beste salbu; hala-koak lagunekin-eta kantatzeko egin nituen, itzulpen-kontzientzia handirik gabe.

**KARLOS:** Nolako prestakuntza izan duzu itzulpengintzan?

**JUAN KRUZ:** Ez dut prestakuntza espezifiko-rik izan alor horretan, ikasketarik eta hala-korik, ikastaroren bat edo beste izan ezik. Eskola-maisu nenbilela, beharrak eraginda hasi nintzen; gero, filologiako ikasketak

egin eta hizkuntza eta literaturan sakondu ahala, itzulpengintza beti eraman nuen alboan. Neure burua ez dut inoiz itzultzaile peto sentitu. Niretzat literatura irakurtzeko eta idazkeran sakontzeko modu bat izan da. Lanbideak ere eskura jarri dizkit (hasi Lehen Hezkuntzatik eta unibertsitatetaino) abaguneak eta kide adituak elkarlanerako. Tentazioa parez pare agertu, eta ni bekatuan erori bete-betean.

**KARLOS:** Zure itzulpengintzaren bilakabidea laburtuko diguzu, hasi zinenetik eta gaur artekoa? Alderik ikusten ote duzu hasieratik gaur arte?

**JUAN KRUZ:** Baudelaireren prosa poetikoko testu haiek itzuli nituenetik, itzultzaile bikainei jarraitzen hasi nintzen, haien itzulpenak irakurriz, edo aurrez aurre, elkarlanean nahiz ikastaroetan parte hartuz. Beste alde batetik, haur-literatura bereziki alor kutuna izan dut; Rodariren fantasia-jolasak eta zenbait ipuin itzultzeak asko lagundu izan dit haurrentzat idaztean; nolabaiteko hari bati jarraitu izan diot haur- eta gazte-literaturako lanekin (Gustavo Martín Garzo, Miquel Desclot, L.F. Baum, A. Milne, E. Lear...), alde batetik neure burua formatzeko, eta, bestetik, zenbait lan eredugarri euskarara ekartzeko. Helduen literaturan, aldiz, noiz-behinkako jarduna izan da, segida bat osatu gabe; nire lanen artean zedarri izan zen Apuleioren *Urrezko astoa* itzultzea Anjel Lertxundirekin, eta segida bat osatzeko asmoa ere bagenuen halako zenbait lanekin, baina zirkunstanziek ez ziguten askorik lagundu eta horretan geratu zen ahalegina.

**KARLOS:** Irakasle eta ikertzaile jardun izana lagungarri gertatu zaizu itzultzeko orduan?

**JUAN KRUZ:** Zalantzarik gabe; gogoan dut doktoregoko ikastaroetan zenbait alor ikertzeko ingelesezko testuak besterik ez zegoela eta, nola ibili nintzen laguntza eske; gero, ingelesezko ikastaroak egin nituen, gutxienez testuak idatziz ulertu eta aipuetarako itzultzeko. Hortik literaturako testu laburrekin probak egitera eta gero luzeagoekin... Institutuko irakasle ibili nintzen garaian, berriz, besteak beste ikasleen antzerki-tailererako Ramiro Pinillaren antzezlan bat itzuli nuen. Baina batez ere unibertsitateko lanbidean landu dut itzulpena; Erizaintza Eskolan klaseak eman nituenean testu ugari itzuli nituen, eta hiztegi bat ere zuzendu nuen; horren ondoren, EHUKO Euskara Zerbitzuan urte asko eman ditut itzulpenak koordinatzen, zuzentzen, egiten, hala arlo teknikoan nola humanistikoan, aldi berean etxean neure kontura itzulpen literarioa praktikatuz; oso esperientzia aberatsa izan da, alde batetik lankide bikainekin elkarlanean ibili naizelako, eta bestetik Elhuyarrekin eta puntako itzultzaileekin harreman estuan jardun dudalako.

**KARLOS:** Zein alor ikertu duzu, batez ere?

**JUAN KRUZ:** Poesia eta haur-literatura izan dira nire alorrak. Eta ahozko literatura. Ahozko literaturak poesia idatzian utzitako arrastoa, tradizioko haur-literatura, haur-poesia, zenbait euskal poeta (Lizardi, Lauaxeta, Orixe, Mirande, Mikel Lasa...)... Eremu horietan ibili izan naiz, baina azkenaldian haur-literaturan gehiago zentratuta. Pena pixka bat badaukat poesiaren alorrean

gehiago ikertu ez izanagatik; ez dut konektatu ondo literatura-kritikan ibili diren azken boladekin (harreraren teoriarekin, kritika genetikoarekin eta halakoekin). Gustura landuko nuen testuen hermeneutika baliabide formalekin harreman estuan, erritmoaren eta musikalitatearen adierazmoldeekin uztarturik (Domínguez Caparrós irakasleak baditu lan batzuk bide horretan barneratze-ko), baina honezkero hala beharko du.

**KARLOS:** Elkarrizketaren batean esana duzu literaturara heldu zinela Rimbaudek, Mallarmék, Baudelairek eta enparauek sortutako harridurak eraginda. Eta Kataluniako eta Galiziako literaturek ere eragin handia izan zutela zure hastapenetan.

**JUAN KRUZ:** Hala da. Lehenagotik, Aresti, Lizardi, Artze, Lete —eta Paco Ibañezek eta Ez dok amairukoek kantatzen zituzten poetak— dastatuak nituen nerabezaroan. Filologia-ikasketak egiten ari nintzela egin nuen topo modu sakonagoan aipatu dituzun egile horiekin, nahiz eta lehenagotik institutuan frantseseko irakaslearekin ezagutuak nituen, baina oso axaletik. Kataluniako eta Galiziako literaturari buruzko ikasgai bat hautatzeko egokiera izan nuen, eta halaxe ezagutu nituen Rosalía de Castro, Curros Enríquez, Castelao eta abar. Curros Enríquez behin eta berriz irakurri nuen, eta Castelaok zabaldu zidan bidea testu laburretara; gero etorriko ziren japoniar haikuak eta Lichtenberg-en aforismoak (gogoan dut zer-nolako pasioz irakurri nuen liburua behin eta berriz eta nola oharrez bete nuen) eta txinatar poesia. Horiekin batera ezagutu nituen klasikoak eta abangoardien lanak (Apollinaire eta Safo, eskuz esku), Atxaga,

Izagirre, F. Juaristi... *Etiopia* erosi eta autotan irakurri nuen, hasi eta buka, etxera bueltan abiatu aurretik; hango norabidealdaketa, hango erreferentziak, gehienak ezagunak, beste ikuspuntu batetik argiztatuak ordea... Txundigarria izan zen. Nahiko modu akademikoan jasoa nuen ondareari jirabuelta ematen zion, eta horrek literatura beste modu batez bizitzera ninderaman.

**KARLOS:** Nola definituko zenuke zeure burua itzultzaile moduan?

**JUAN KRUZ:** Hori besteren lana delakoan nago. Norbera ez da batera objektiboa izaten. Zerbait esateko, jolasti moduan ikusten dut neure burua itzultzen ari naizenean, besterenetik idatziz idazten ikasteko edo. Badakit testu batzuek izerdia aterarazten dutela, baina patxadaz hartu eta handik eta hemendik probak egin ditzakezu konforme samar geratu arte. Sortzeak tenka handiago eragiten dit. Itzultzean, mendian aldapagoa joan eta joan sentitzen naiz; sortzean, berriz, eskalada egiten, gehienetan sokaren batekin, baina ezer gabe ere geratzen zara batzuetan.

**KARLOS:** Zer alde dago Juan Kruz idazlearen eta itzultzailearen artean?

**JUAN KRUZ:** Hizkuntzari estuago heltzen diot itzultzen ari naizenean; beste batek asmatutakoa ahalik eta fidelen eta ahalik eta etxeratuen ematen saiatzen naiz, euskaraz sortu balitz bezalako itxura eman nahian eta originalari ahalik eta estuen loturik. Sortzean, berriz, psikearen alde gehiago askatzen ditut, eta hizkuntzaren kontrola askeago geratzen da. Esango nuke itzultzean

buruaren kontrol kontzientea uneoro adi egoten saiatzen dela, eta sortzean, berriz, inkontzientea nagusitzen dela, nahiz eta gero, behin eta berrizko errepasoetan, ertzainburu edo buru-ertzain hori itzuli egiten den goitik behera dena miatu nahian.

**KARLOS:** Itzulpengintzak emandako une goxoren bat.

**JUAN KRUZ:** Asko. Puzzlearekin jolasean bezala sentitzen naiz, batik bat poesia itzultzean. Duela hainbat urte, Castelaoren *Cousas* itzultzen jardun nintzen, neuretzat; saminarekin batera sentiarazten zidan samurtasun hain humano hark boligrafoa dantza isilean bezala ibili zidan.

**KARLOS:** Itzulpengintzak emandako une garratzen bat.

**JUAN KRUZ:** Sormenak emandako ozpin eta ziztadekin alderatuta, ezti eta ezko izan ote den nago. Literatura itzultzen modu amateurrean ibili izan naiz, eta horregatik izango da beharbada. Modu profesionalean jardun izan banintz, latzagoa izango zen seguru asko; diru-kontuetatik hasita, jakina.

**KARLOS:** Itzulgaiak aukeratzeko bidea izan ohi duzu ala proposamenen ondorio izaten dira?

**JUAN KRUZ:** Literatura itzultzeko ez ditut proposamen asko jaso izan, eta jaso ditudanak oso interesgarriak izan dira oro har. Gehienbat, neure gisara jardun dut, eta egindako lan batzuek argia ikusi dute. Une honetan, adibidez, Edward Lear-en *Nonsense* liburua itzulia daukat, eta baita N. Lindsayren *Budin magikoa* ere. Azken

horren burutazioa Mariasun Landarekin honetaz eta hartaz berriketan ari nintzela etorri zitzaidan. Horrelaxe jokatu izan dut gehienetan, kasualitateei kasu eginez.

**KARLOS:** Idazle ere bazaren aldetik, zein alde edo ezberdintasun ikusten duzu lantegibion artean?

**JUAN KRUZ:** Jokabide asko daude kontu horretan. Nire kasuan, itzultzerakoan askoz ere analitikoagoa naiz, behin liburuaren tonua eta nondik norakoa hartuta. Sortzean, berriz, nahiz eta askotan aldez aurreko gidoi bat eduki, bulkoak agintzen du, eta inoiz ez dut hasieran pentsatutako norabidetik jarraitzen. Esan nahi dut sortzean literatura-senari jarraitzen diodala, jardun analitiko gero jartzen dela agintari, bigarren eta hirugarren eta enegarren errepasoan. Hizkuntzaren erabileran, berriz, saiatzen naiz bi alorretan berdintsu jokatzeko (erregistroak, testuinguruak eta halakoak kontuan izanda, jakina), baina aitortu behar dut itzulpenean gehiago behartzen dudala neure burua zenbait gauza nola esan aurkitzera; sortzean, askotan oharkabea, idazlumak bide jorratuak erabiltzen ditu, hizkera literarioari dagokionez.

**KARLOS:** Hainbat sari jasotakoa zara. Zer eragiten dizute? Gustukoena zein izan duzu?

**JUAN KRUZ:** Sariak, poza baino gehiago, poxa ematen didate. Poxarekin batera, ezinbestez etortzen zait burura batentzako txaloak beste askorentzat zaplaztekoak direla. Gustura jasotzen dira sariak, eta saminez dira ez-jasotzen, artista ausart gutxi batzuen

salbuespenarekin. Hala ere, nik uste dut idazle gehienok (hala sinetsi nahi nuke) argi daukagula sariak ez direla benetako maila literarioaren ispilu, maila hori erakusteko ibilbide bat osatu beharra dagoelako eta egindako lana denboraren eta irakurle aditu askoren galbahetik iragazi beharra dagoelako. Gaur nagusitzen ari den immediatismoak eta glamourra eragin nahirik dabilen literatura «bitxisua» txoro horrek ez diote batere mesederik egiten literatura sendo bat osatzeko erronka historikoari.

**KARLOS:** Sarietako epaimahaietan egotea gustuko duzu? Zergatik?

**JUAN KRUZ:** Gutxi batzuetan egon izan naiz, neure burua zapuzkeria erabatekotik libratzeko edo, baina ez dut gustuko lana; beti injustizia-sentsazio batekin irtetzen naiz. Sariak irabazten dituzten lanak ez dira literatura aldetik sendoenak edo bortitzenak, baikik eta saria irabazteko egokienak. Askotan beste lan batzuek sen literario ahaltsuagoa izaten dute, baina ez daude ongi biribilduak saria irabazteko, edo ez dute mementoko xarma hori eragiten. Saria irabazteko lan sari-irabazlea egin behar da, eta askotan horrek ez du literatura ahaltsu batekin zerikusi handirik.

**KARLOS:** Zer hartzaile mota izaten duzu gogoan itzultzen duzunean?

**JUAN KRUZ:** Lehenbizi, neure burua; neure burua gozatzeko itzultzen dut. Haurrentzako liburua izanez gero, hartzailearen psikea (garapen maila edo) kontuan hartzen dut hizkuntza erabiltzeko orduan. Bestela, neure buruarekin ari banintz bezala itzultzen

dut. Zuzenketak egiterakoan, aldiz, Juan Garziaren iratxoa askotan agertzen zait, be-larriaren ertzetik errietan; saiatzen naiz obeditzen, baina beti geratzen zait kontuan izan ez dudana zerbait.

**KARLOS:** Gustukoen izan duzun itzulpena?

**JUAN KRUZ:** *Urrezko astoa*, prosan; poesian, San Juan de la Cruz-en zenbait poema, batik bat «*Entreme donde no supe...*» hasten dena.

**KARLOS:** Zer hizkuntzatatik itzultzen duzu erosoan? Zergatik?

**JUAN KRUZ:** Gaztelaniatik, jakina, ume-tatik horretan jardun naizelako/garelako. Lanbidean ere hamaika kontu itzuli behar izan ditut gaztelaniatik. Behar hori (batzuetan gogaikarria) plazer bihurtu zait taxuzko testuekin topo egin dudanean. Gustatu-gustatu, ordea, frantsesetik eta ingelesetik; sorburu-hizkuntza zenbat eta nigandik urrunago, itzultzeko are erakarmen handiagoa.

**KARLOS:** Itzuli dituzun (eta ez dituzun) lanak gogoan, besterik zer itzuliko zenuke, aukerarik izanez gero?

**JUAN KRUZ:** Haur-literaturako liburu go-gangarriren bat edo beste egingo nuke.

**KARLOS:** Nola ikusten duzu euskal itzulpen-gintza, orokorrean? Eta euskal literatura?

**JUAN KRUZ:** Euskal itzulpengintzan aurre-rapauso handiak egin dira, batik bat Literatura Unibertsala egitasmoa abian jarri zenetik. Ondo trebaturiko jende asko dago itzultzaileen artean, eta kultura literario

zabala dutenak ez dira gutxi; idazle fin askoren txokoa da itzulpengintza. Hala ere, beharrak eta hedapenak eraginda, itzulpen kaxkar ugari ikusten da bazterretan, askotan zuzentasun politikoa betetzeko aitzakiarekin egindakoak, besterik gabe. Badago zertaz kezkatu, badago zertaz harrotu. Euskal literaturan ere inoiz baino idazle gehiago dago, horietako asko bikainak. Denentzat irakurleak falta, ordea. Horrez gainera, irizpide komertzialak gero eta gehiago agintzen du, eta horrekin batera gero eta literatura komertzialagoa argitaratzen eta txalotzen da. Kultura-politikan zerbait egin nahi da, baina ekimenak axalean geratzen direla esango nuke.

**KARLOS:** Non eta nola ikusten duzu itzulpena euskal letren «auzo»an?

**JUAN KRUZ:** Estimazio zabalik ez du, nik uste, baina bai estimazio handia lan hori benetan estimatzen duen minoriaeren artean. Literatura Unibertsala saila berrindartu egin beharko litzateke; kultura-politikaren lehentasuna izan beharko luke. Berdin pentsamenduaren klasikoen bilduma. Egin diren itzulpen asko birzuzendu, gaurkotu beharrean daude; kultura batek munduko pentsamendua eta sorkuntza literarioa ahalik eta eguneratuen eduki behar ditu, bere buruagan sinesten badu behintzat; alegia, itxura egiten baino ari ez bada behintzat. Zientzia eta humanitate alorretako testu esanguratsuen puntako itzulpenak ere behar ditugu; badira batzuk, baina, ekimen hori indartzen ez bada, gerora jai daukagu.

**KARLOS:** Aukera izanez gero, zer kultur eta itzulpen politika antolatuko zenuke?

**JUAN KRUZ:** Kontu batzuk jorratu ditut aurreko erantzunetan. Lehenbiziko gauza da gure gizarteak eta gizartearen ordezkariak gogoeta serioago bat egin behar dutela/dugula itzulpenaren funtzioaz. Itzulpena kulturaren eta gizartearen ardatza da. Gure burua, bakanka eta talde sozialak osatuz, etengabe itzultzen ari da. Nire ustez, elebitasuna bermatetik harago doan kontua da. Euskarara egindako itzulpengintzak gaurko munduari kultura duin eta indartsu batez erantzuteko egitura bat eraiki behar du alor guztietan. Bestela, jai dugu. Eta hori ez da soilik gure zilborrari begira egin beharreko lan bat, munduari zor diogun zerbait baizik. Gurea bezalako hizkuntza batean sortutako kultura indartsu batek gero eta uniformeagoa eta txiroagoa den munduaren ondarea aberasten du. Zenbaiten jokabidea ikusita, aski genuke ingeles komertzial makarroniko bat denok elkar ulertzeko (elkarri dirua ateratzeko, alegia). Hozkia ere ematen dit, baina zantzu batzuek horretara ote goazen erakusten dute.

**KARLOS:** Libre eta sortzaile sentitzen zara itzultzean? Zergatik?

**JUAN KRUZ:** Libre-libre, ez. Jatorrizko testuak kate motzean eusten du, baldintzak ezartzen ditu, alorra mugatzen du. Sortzaile, ordea, bai. Beharko. Jatorrizko testuak, mugak ezartzeaz gainera, erronka botatzen dizu: hortxe daukak baratzea, hortxe haziak, neuk jarriak; orain, erein ezak eta bil ezak uzta; heuk asmatu nola.

**KARLOS:** Zer erantzuten edo pentsatzen duzu *Traduttore, traditore...* entzutean?



**JUAN KRUZ:** Ez dut ezagutzen amodiozko harremanik itzultzailearena baino fidelagorik, baldin bere eginbeharraren kontzientzia sendoa badu behintzat. Harena ez da trazioa; izatekotan, ezina. Itzultzaileak badauki huts egingo diola testu maiteari, baina amodio guztia eskaintzen dio. Apaltasun intelektualaren eredu bat da hori, eta maitasunezko lezio bat. Bestela, ezin da itzuli; jatorrizkoa zapuztu baino ez.

**KARLOS:** Zer da, zure iritziz, fidelatasuna itzulpengintzan?

**JUAN KRUZ:** Batez ere jarrera bat. Jakina, esan beharrik ez dago ez duela zerikusirik literaltasunarekin; literaltasuna umekeria bat da. Irudi baten bidez adierazteko, eman dezagun jatorrizko testua gorputz bat dela; bada, gorputz horren barruan sartu behar duzu, eta mingaina aldatu, mintzoa aldatu, baina pentsamoldea, testuingurua eta sentitzeko modua hor daude; gorputz horretan sortu behar du oihartzuna mintzo berriak, ahalik eta arrakala gutxien eraginez; batzubatzuk ezinbestean agertuko dira, baina.

**KARLOS:** Zein izan da itzuli behar izan duzun itzulgairik latzena?

**JUAN KRUZ:** Poesia egiten zait zailena, batik bat musikalitatearekin, erritmoarekin, errimarekin, oihartzun fonetikoekin jokatzeko duenean; ebokazioak ere zailak dira itzultzeko, batez ere kultura jakin bateko edukiak iradokitzen dituztenean. Esate baterako, Edward Lear-en limerickak itzultzean, errimak eraldatu behar izan ditut, berak askotan toponimo batekin egiten baititu errima horiek, eta, jakina, euskaraz ezinezkoa ger-

tatzen da (adibidez, Sussex eskualdearekin egindako errima, modu estuan behintzat); horrez gainera, ingelesak oso silaba gutxirekin osatzen ditu esaldi luze samarrak; hark 8 eta 7 silabekin jokatzeko duenean euskal hamarreko handia eskatzen du, gutxienez, edukia kabitu ahal izateko. Baina jolas zirrargarria da.

**KARLOS:** Zenbait euskal girotan, oraindik, sorkuntzako testuek itzuliek baino izen handiagoa dute. Zer deritzozu horri, irakas-kuntza ondo baino ezagutzen duzula kontuan?

**JUAN KRUZ:** Hori horrela da, albumetan izan ezik (gehienak itzulpenak dira gure artean). Itzulpenak irakurtzeko ohitura erroto gabe dauka gure irakurleak; kontu horretan, diglosia garratza da, zeren gaztelaniatik eta frantsesetik jaten ditu itzulpenak (askotan itzulpenak direla ere ohartu gabe). Gaur egun euskarara itzulitako testu asko eta asko oso atseginak dira irakurtzeko (gaztelaniazko edo frantsesezkoekin konparatuta, batzuetan hobeak eta mimo handiagoz eginak, gainera), baina irakurlea irabazi beharra dago, pixkanaka behinik behin. Hala ere, irakurle falta horrek ez du bihurtu behar politikoki ez babesteko aitzakia, zerbait murtxikagarriagoaren mesedetan; lakio horretan eroriz gero, ez dugu inoiz irakurlea gaituko.

**KARLOS:** Claudio Magrisek zioenez, itzulpena beste literatur genero bat da, eta itzultzailea, ondorioz, «egilekidea». Zer uste duzu?

**JUAN KRUZ:** *Genero* terminoaz zer ulertzen den. Zentzu tradizionalan, *genero* hitzak

beste zerbait adierazten du. Itzultzailea egilekide dela, hori bai, hizkuntza-eremu berri bat konkistatzen laguntzen baitio obrari, egileari baino gehiago, ezen egileari obra hein batean lapurtu egiten dio. Itzultzailea luxuzko bitartekaria da, eta obraren ardura hartzen du beste hizkuntza batean. Denok dakigu itzulpen on baten ezaugarri bat dela obra xede-hizkuntzan sortua balitz bezalako itxura ematea.

**KARLOS:** Benetan izan behar du ikusezina itzultzaileak?

**JUAN KRUZ:** Itzultzailea nor den. Imajina ezazu Seamus Heaney Nobel sariduna euskal itzultzaile baten laguntzaz Lizardi ingelesez ematen Eusko Jaurlaritzaren hitzarmen baten ondorioz. Badira itzulpenak originala hobetu dutenak. Itzulpen literario batean, itzultzailearen izenak egilearenaren alboan joan beharko luke; ez da gehiegikeria. Itzultzaileak obraren ardura hartzen du, eta beraren eskuetan dago emaitza.

**KARLOS:** Zure egilerik kutunena? Zergatik?

**JUAN KRUZ:** Kutunak asko ditut. Esan liteke irakurleok, eta batez ere irakurtzeaz gainera idatzi ere egiten dugunok, buruan egile birtual bat (eta, askotan, ideal bat) dararamagula. Nireak Puxkinen ezpainak ditu, Lorcaren belarria, Rilkeren eta Lizardiren ikusmena, Saforen ukimena, Borgesen arnasa, Shakespeareren oroimena, Goetheren burmuina, Anjel Lertxundiren bizkarra, Atxagaren gerrikoa, Mariasun Landaren betazalak, Felipe Juaristiren betaurrekoak, Patxi Zubizarretaren patillak, Karlos Linazasororen bekainak, Silvia Plathen lepoa...

Eta, aldi berean, obra kutun bat ere osatuz goaz, barrua hunkitu edo burmuina astindu edo oilo-ipurdia jarri diguten testu edo fragmentuez osatua. Liburu kutun horrek orriak irabazten ditu egunetik egunera. Baina galdu ere egiten ditu, gure gustua birfindu ahala (edo gustuaren endekapena ere gerta liteke, pertsonon norabideak asmaezinak baitira).

**KARLOS:** Itzulpenak jatorrizkoa hobetu ere dezake?

**JUAN KRUZ:** Bai, jakina. Esate baterako, itzultzaile on batek erdipurdiko lanak itzultzean jatorrizkoan trakets adierazia dotore ematen badu, edo grazia gehiagorekin, edo musikalitate hobearrekin, edo ideiak argiago emanez. Adibidez, Irene Aldasoro legeak itzultzen jardun denean begirale-lana egitea tokatu zait behin baino gehiagotan; zalan-tzarik gabe haren itzulpenek originala dexente hobetzen dute. Obra bikain bat bikainagotzea ere gerta liteke, baina hori mirari baten antzekoa da; baina gertatzen dira gauza bitxi askoak: poemak galegora itzultzen direnean, ematen du musikalitatea irabazi dutela, hain baita musikala hizkuntza hori; edo, katalanera itzultzean, grazia berezia hartzen dute testu batzuek, hizkuntza horretako monosilabo ugariak eta katalanaren fonetikak umorerako eta jolaserako aukera gehiago dituztela dirudielako.

**KARLOS:** Umberto Ecoren arabera, itzultzailea zentzu komunari min ematen ez dionten hizkuntza soluzioen negoziatzailea da. Hala deritzozu?

**JUAN KRUZ:** Abiapuntu egokia dirudi. Kontuan izan, hala ere, zentzu komun hori sarritan komuneko zentzu izaten dela; ez da, beraz, jokabide orotarikoa. Jatorrizkoari ispiluairen beste aldetik begiratu eta haren irudia alde honetatik osatzen saiatzen zarenean, batzuetan jatorrizkoak jendearen ohiko pentsamoldeari ihes egiten dio (zora-meneraino irits litekeen den bidea da hori); halakoetan, itzultzaileari arriskatzea besterik ez zaio geratzen, gal edo irabaz ekitea, zentzabidetik aldenduz.

**KARLOS:** Ba al duzu esku artean itzulpen lanen bat hasita?

**JUAN KRUZ:** Txinatar poesia klasikoko zenbait egileren poemak noizbehinka itzultzen ari naiz, frantsesetik batik bat, txineraz dakien lagun batekin tarteka komentatuz. Latin poesiarekin ere egin ditut ale batzuk. Argitaratzeko asmorik gabe, oraingoz behintzat. Eta egun hauetan Yeats-en antologia-txo bat prestatzen ari naiz Munduko Poesia Kaierak ekimenerako.

**KARLOS:** Aspaldion irakurritako itzulpen gogoangarriren bat?

**JUAN KRUZ:** Rulforen *Pedro Páramo*, Juan Garziaren itzulpenean; originalarekin bezainbat gozatu nuen (ia, esan beharko dut, Rulfo niretzat jainko bat da eta). Joyceren *Ulyses*, Olarraren itzulpenean; bide batez, Igela argitaletxeak ekarri duen ondarea eta egin dituen itzulpenen kalitatea merezimen-du handiko lana da; ez dakit behar bezala aitortu zaion.

**KARLOS:** Itzultzen hasi nahi duenarentzako eta hasi berrientzako aholkuren bat?

**JUAN KRUZ:** *Aholku* hitzaren doinuak badu halako kontraeztarritik joateko onomatopeiairen oihartzunik. Aholku asko eman litezke, gehienak guk jarraitu ez ditugunak (oso gerora konturatu arte). Zerbait esateko, lehenbiziko kontua, itzultzen hasi aurretik, irakurtzen ikastea da, irakurtzearen zentzurik sakonenean. Horretarako, munduko literatura eta norberaren literatura-tradizioa irakurri beharra dago, eta ez lerro-pasa hutsean, irakurtzen dena gogoeta bihurtuz baizik, plazeraren zimurrik ezkutuenak arakatur, beste irakurketekin buru barruan erkatuz, gainjarriz, kontrastatuz. Arnasa luzeko ibilbidea da itzultzailearena, eta asko du elkarlanetik; nahiz eta bakarrik jardun mahaian, besteekin noizbehinka kontrastatu beharreko kontuak dira (askotan norberak aurkitzeko urteak behar dituen eskarmentua duen batek minutu gutxian jartzen dizu begien bistan).

**KARLOS:** Behar diren baldintza guztiak eskura edukita, zer gustatuko litzaizuke itzultzea?

**JUAN KRUZ:** Danteren *La divina commedia*, haren garaiko *dolce stil nova* eta lingua fiorentina ondo interpretatzen dituen norbaiten laguntza baneuka. Eskatzen hasita...

**KARLOS:** Azken egunotan bazterrak nahasten ari da Amanda Gormanen inguruan gertatutakoa; alegia, haren poemak itzultzeko emakume beltz gazte eta militante izateko baldintzaren ondorioz itzultzailearen bat gaitzetsi izana, besteren batek uko egina... Zentsuraz hitz egiten dute batzuek; besteren batek itzulpen populismoaz ere idatzi du. Zer uste duzu zuk?

**JUAN KRUIZ:** Txorakeria galanta. Bazterkeria horrelako kontuekin zuzendu nahi izateak arreta gune garrantzitsuetatik aldenarazi egiten du. Kontua ez da gizonezkoak eta zuriak baztertzea, gauzak berdindu nahian edo, baizik eta gizonezkook eta zuriok geure haragi-haragian barneratzea emakume eta beltz ere bagarela (edo gainerako kondizioak, ezen ez baitira bi horiek bakarrik); hori ez da lortzen bazterkerien alderantzizko bazterkeriekin. Emakumeen artea ez da hobetzen erdipurdiko lanei bikaintasuna aitortuz. Plath, Dickinson, Akhmatova... Horiek dira neurria, nire aburuz. Jabetu behar dugu emetasuna pertsona oren ezaugarria dela, eta belztasuna ere bai. Ama

batengandik jaiotzen gara (oraingoz behintzat); beraz, eme baten emaitza gara, haren esnea edoskitzen dugu, eta geure baitan eramaten dugu hil arte. Belztasunari dagokionez, berriz, gure jatorria Afrikan baldin badago, pentsa nondik gatozen. Gizonezkoon eta zurion akatsik handiena horretaz ez jabetzea eta ezaugarri horiek bistan erakusten dituztenak ez errespetatzea eta ez mirestea da. Kontzientzia-aldaketa hori gabe, xelebrekeriak asmatu besterik ez dugu egingo, eta xelebrekeria horiek arazoaren fokua lausotzen dute, bitartean munduan emakume (eta ume) bortxatuak, esplotatuak eta hilak ugalduz doazen bitartean.

### Resumen

Juan Kruz Igerabide es profesor de Educación Primaria, licenciado en Filología Hispánica y doctor en Filología Vasca. Tras varios años como docente en Educación Primaria y Secundaria, trabajó como profesor en la Universidad del País Vasco, tanto en el departamento de Filología Vasca como en el Servicio de Euskera. Ha traducido al euskera varios libros de la literatura universal, como *El Asno de Oro* de Lucio Apuleyo, versiones juveniles de *La Odisea* de Homero y de *Las metamorfosis* de Ovidio, algunas adaptaciones de los mitos griegos, así como diversos poemas que ha publicado en esta revista. A lo largo de la entrevista habla sobre la tradición oral vasca, la literatura vasca, la traducción, la creatividad, el lenguaje... A pesar de haber obtenido numerosos premios, se muestra con total sencillez, sin ninguna vanidad. Recientemente se ha jubilado, aunque no ha dejado de escribir y traducir.

### Résumé

Juan Kruz Igerabide est enseignant en école primaire, diplômé en Philologie hispanique et docteur en Philologie basque. Après avoir enseigné pendant plusieurs années en école primaire et secondaire, il a travaillé comme professeur à l'Université du Pays basque, à la faculté de Philologie basque et au Service de l'euskara. Il a traduit plusieurs œuvres de la littérature universelle vers le basque, comme *L'Âne d'or* d'Apulée, les versions pour la jeunesse de *l'Odyssee* d'Homère et les *Métamorphoses* d'Ovide, ainsi que quelques adaptations de mythes grecs. Dans cet entretien il parle de tradition orale basque, de littérature basque, de traduction, de créativité, de langue... Bien qu'il ait été primé à diverses reprises, il se montre en toute simplicité et en toute modestie. Dans cette revue il a souvent publié des poèmes traduits. Il a récemment pris sa retraite, sans avoir cessé l'écriture et la traduction.

### Abstract

Juan Kruz Igerabide is a teacher in Primary Education who holds a degree in Hispanic Philology and a doctorate in Basque Philology. After several years as a Primary and Secondary School teacher, he became a professor at the University of the Basque Country, in the Basque Philology Department and in the Basque Language Service. He has translated various works of world literature into Basque, such as *The Golden Ass* by Apuleius, children's versions of Homer's *Odyssey* and Ovid's *Metamorphoses*, and adaptations of a number of Greek myths. In this interview, he discusses Basque oral tradition, Basque literature, translation, creativity, language, etc. Although he has won various awards, he is humble and sincere. He has often published poems in translation in this journal. He recently retired, though he continues to write and translate.